

# TXOSTENA 2025

## *hegoa*



Nazioarteko Lankidetzeta eta  
Garapenari buruzko Ikasketa  
Institutua  
Instituto de Estudios sobre  
Desarrollo y Cooperación  
Internacional





Nazioarteko Lankidetzeta eta  
Garapenari buruzko Ikasketa  
Institutua  
Instituto de Estudios sobre  
Desarrollo y Cooperación  
Internacional



EHU  
Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre, 81  
48015 **Bilbo**  
Tel.: (34) 94 601 70 91

EHU  
Carlos Santamaria Zentroa  
Elhuyar plaza, 2  
20018 **Donostia-San Sebastián**  
Tel.: (34) 943 01 74 64

EHU  
Koldo Mitxelena Biblioteka  
Nieves Cano, 33  
01006 **Vitoria-Gasteiz**  
Tel.: (34) 945 01 42 87

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)



@hegoainstitutua.bsky.social



instituto-hegoa



@HegoaInstitutua



# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b>	<b>4</b>
<b>2. Prestakuntza jarduerak</b>	<b>6</b>
2.1. Hegoak eskaintzen dituen graduondoko ikasketak	6
2.1.1. Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programa	6
2.1.2. Master ofizialak	6
2.1.3. Etengabeko prestakuntza	8
2.2. Hegoak antolatutako mintegiak eta jardunaldiak	8
2.3. Graduondoko beste unibertsitate prestakuntza batzuetan izandako parte-hartzea	18
2.4. Emandako hitzaldiak eta tailerrak	19
2.5. Beste ekitaldi batzuetan izandako parte-hartzea	20
<b>3. Ikerketa jarduerak</b>	<b>21</b>
3.1. Ikerketa taldeak, ildoak eta proiektuak	21
3.1.1. Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa	21
3.1.2. Gatazkak, bakea eta garapena	25
3.1.3. Garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako politiken koherentzia	31
3.1.4. Hezkuntza	32
3.2. Garapenari buruzko Ikasketen arloko doktore tesiak	36
3.3. Batzordeetan, ordezkaritzetan eta artikuluen ebaluazioan izandako parte hartzea	36
3.4. Ponentziak eta komunikazioak	38
3.5. Hegoak parte hartutako beste ikerketa jarduera batzuk	41
<b>4. Argitalpenak</b>	<b>45</b>
4.1. Hegoak argitaratutako liburuak eta beste material batzuk	45
4.2. Hegoaren aldizkako argitalpenak	46
4.2.1. Cuadernos de Trabajo / Lan Koadernoak	46
4.2.2. Hegoak Zabalduz	47
4.2.3. Informazio Baliabideen Buletina	47
4.2.4. Hariak. Hezkuntza emantzipatzailea birsortzen	47
4.3. Hegoako kideen liburuak, liburu-kapitulua, artikulua eta beste argitalpen batzuk	47
<b>5. Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak</b>	<b>52</b>
5.1. Dokumentazio Zentroaren zerbitzu digitalak	52
5.2. Multimedia produktu berriak	54
<b>6. Aholkularitza zerbitzuak</b>	<b>57</b>
<b>7. Erakunde Aldaketa Feministarako Ekintza Plana 2023-2026</b>	<b>58</b>
<b>8. Erakundearen organigrama</b>	<b>59</b>
<b>9. Txosten ekonomikoa</b>	<b>61</b>



# 1. Aurkezpena

Memoria honetan Hegoa Institutuak 2025ean zehar egindako prestakuntzako, ikerketako, unibertsitate-hedapeneko eta aholkularitzako jarduera nagusiak laburbilduko ditugu.

Urte horretan, Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Masterraren, Globalizazioa eta Garapena Masterraren eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Hezkuntza Askatzailea (*online*) Masterraren edizio berriak egin ditugu. Horiek graduondoko prestakuntza espezializatua dira, eta, graduondokoaren arabera, prestakuntza horrek *curriculumeko* edo *curriculumaz* kanpoko izaera du. Gainera, aurten, master horien jarduera osagarrien kopurua hazi da, hain zuzen ere, nazioarteko lankidetzarekin lotura duten beste erakunde batzuen lankidetzari esker antolatutako jardunaldi eta mintegien bitartez.

Prestakuntza eskaintza hori Garapenari buruzko Ikasketak Dokorego Programarekin osatzen da. Hegoak koordinatutako programa horretan GEZKI Institutuak, Ekonomia Aplikatua, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak eta Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Sailak ere parte hartzen dute. 2025ean, 80 tesi matrikulatu dira, horietatik, 19 lehen aldiz; eta Hegoako irakasle eta ikertzaileek zuzendutako eta Institutuko eremu akademikoan garatutako lau tesiren defentsa egin da. Masterren kasuan bezalaxe, prestakuntzako mintegi osagarriak eta tesien aurrerapenen aurkezpenak sustatu ditugu.

Ikerketaren arloan, Hegoako lantaldea eta Institutuari atxikitako irakasle-ikertzaileak – baita Estatuko zein Latinoamerikako beste unibertsitate batzuetakoak ere – elkartzen dituzten taldeen eta proiektuen inguruan antolatu da gure jarduera. Esate baterako, Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Taldea dugu, Eusko Jaurlaritzaren aintzatespena duena (2022-2025). Taldeak honako ildo hauek landu ditu: Tokiko giza garapena, lurraldea eta instituzionaltasuna; Tokiko trantsizio ekosozialak eta ekonomia sozial eta solidarioa; Gatazkei, bakeari eta segurtasunari buruzko ikasketa kritikoak; eta Feminismoak, gatazkak eta giza eskubideak. Beste alde batetik, Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzaren Politiken Koherentziari buruzko Taldeak EHUren aintzatespena du (2022-2025). Taldeak honako ildo hauek landu ditu: 2030 Agenda eta GIHak; erakunde deszentralizatuen eta unibertsitatearen eginkizuna lankidetzaren arloan; eta elikadura burujabetza. Gainera, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren funtzionamenduan lagundu du.

Hegoaren proiektuei dagokienez, 2025ean hainbat gai landu dituzte, hala nola birlurraldaraztea eta interkooperazioa Caucan bakea eraikitzeko (Kolonbia); Ekonomia Sozial eta Solidarioaren tokiko ekosistemak eta horiek Andeetako trantsizio ekosozialei egiten dizkieten ekarpenak (Peru, Ekuador, Kolonbia, Bolivia); Kolonbiako erbesteratuen eta Mendebaldeko Saharako biztanleen giza eskubideen urraketen biktimei zuzendutako bidelaguntza; Kolonbiako Egiaren Batzordeak bakearen eraikuntzari egindako ekarpenak; giza eskubideen defentsarako diskurtso eta praktika feministak; sahararren memoria eta erresistentzia Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketen aurrean; eta unibertsitatearen eginkizuna eraldaketa ekosozial eta ekofeminista baterako ezagutza eta ekintza kritikoa sortzeko. Proiektu horietarako, bada, honako erakunde hauen diru-laguntza izan dugu: Eusko Jaurlaritza (eLankidetzaren – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, eta Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritza), Euskal Fondoak – Lankidetzarako Euskal Toki Erakundearen Elkarteak, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID), eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa (MICIU).

Proiektu horietan guztietan, ikerketa-jarduerak txosten, komunikazio eta argitalpen ugari ekarri ditu aipatutako gaien inguruan. Baina, horretaz gain, unibertsitate hedakuntzako eta gizarte kontzientziazteko ekintza ugari egin ditugu (mintegiak, jardunaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, etab.), Euskadin, Espainiako Estatuan eta Latinoamerikan; horietako asko pertsona, erakunde eta unibertsitate aliatuen laguntzaz.

Hegoak egindako aholkularitza-lanek beste kapitulu garrantzitsu bat osatzen dute. 2025ean, nazioarteko lankidetzako zerbitzuak eman dizkiegu Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, baita Basauriko, Eibarko, Ermuko, Ordiziako eta Getxoko udalei ere. Zerbitzu horien artean izan dira, kasuaren arabera, diru-laguntza deialdietara aurkeztutako proiektuen ebaluazioa, onartutako proiektuen jarraipena, araudiari eta plangintza estrategikoari buruzko orientazioa, eta deialdietan parte hartu duten erakundeen prestakuntza.

Institutuaren funtsezko eremuetako beste bat Dokumentazio Zentroa (CDOC) da, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren gaian espezializatutako informazio eta dokumentazio zerbitzuak eskaintzen dituen eremu gisa. CDOCek aurrez aurreko kontsulta eta mailegu zerbitzuak eskaintzen jarraitu du, irakasleentzat, ikasleentzat eta beste edonorentzat ere. Gainera, zentroak Liburutegi Digitala du, urte amaieran 22.500 erregistro zituena, gaztelaniaz gehienak, euskaraz gero eta gehiago, eta ingelesez, frantsesez eta arabieraz ere bai. Informazio digitaleko zerbitzuen artean, Hegoaren argitalpenen webgunea, multimedia eremua, hemeroteka eta zenbait atari tematiko daude.

Amaitzeko, egindako guztiarekin batera, Hegoak Erakunde Aldaketa Feministarako Ekintza Plana (2023-2026) inplementatzen jarraitu du, Institutuko Barne Talde Feministak lideratuta. Horretarako, bada, neurri zehatz berriak hartu ditugu. Prozesuak gure antolakuntza kulturaren eta jardunbidean ikuspegi kritiko feminista txertatzeko erronka ekarri digu.

Irantzu Mendia Azkue  
*Hegoako zuzendaria*





## 2. Prestakuntza jarduerak

### 2.1. Hegoak eskaintzen dituen graduondoko ikasketak

Hegoaren prestakuntzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren arloko jarduerak zenbait irakaskuntza motaren bitartez gauzatzen da. Alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eskaintzen dituen Doktorego Programa, Goi-mailako Hezkuntzarako Europako Esparruaren (GHEE) formatura moldatutako master ofizialak, eta etengabeko prestakuntzako *online* masterra ditugu. Beste alde batetik, Hegoa Institutuko kideek graduondoko ikastaro askotan parte hartzen dute (doktoregoak, masterrak, espezializatuak eta diplomatuak), Espainiako Estatuko, Europako eta Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan. Azkenik, jarduerak horrekin batera, ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak eta mintegiak ere egiten ditugu, beste unibertsitate, garapenerako gobernu kanpoko erakunde (GGKE) edo erakunde batzuek eskatuta.

#### 2.1.1. Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programa

Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programa EHUK Doktoreko Eskolaren (DOKe) bitartez eskaintzen dituen doktoregoen barruan kokatzen da. Hegoa Institutuak koordinatutako programa horretan, GEZKI Institutuak, Ekonomia Aplikatua, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak eta Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Sailak ere parte hartzen dute.

Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programak honako ikerketa-ildo hauek ditu: Generoa eta garapena; Nazioarteko lankidetzak eta ekintza humanitarioa; Garapenaren finantziak eta mikrokredituak; Landa garapena eta elikadura segurtasuna; Migrazioak eta baterako garapena; Giza garapenerako eta jasangarritasunerako teknologia egokiak; Gatazkak, segurtasuna eta garapena; Garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak; Kultura, komunikazioa eta garapena; Nazioarteko erakunde ekonomikoak eta integrazio ekonomikoa; Gizarte bazterketa, pobrezia eta desberdinkeria; Ingurumena eta garapen iraunkorra; Lan harremanak, gizarte eskubideak eta enpresa transnazionalak; Tokiko garapena eta lurraldea; Partaidetza, demokrazia eta giza eskubideak; Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak; Ongizatearen eta garapenaren adierazleak eta neurketa; eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa.

Programak, 2011n, Bikaintasunerako Aipamena izan zuen Hezkuntza Ministerioaren eskutik.

#### 2.1.2. Master ofizialak

*Globalizazioa eta Garapena* masterra eta *Garapen eta Nazioarteko Lankidetzak* masterra EHUKo unibertsitate-tituluen eskaintzaren parte dira. Masterrak Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatua Sailak koordinatzen dituzte, eta *Garapenari buruzko Ikasketak* Doktorego Programarako sarbidea ematen dute.

#### Globalizazioa eta Garapena Masterra

Masterra espezializazio akademikora eta ikerketa prestakuntzara bideratzen da eta, hain zuzen, globalizazioaren fenomenoaren eta garapen prozesuaren arteko harremanean zentratzen da. Diziplinari irakaskuntza proposamen hori Garapenari buruzko Ikasketen (*Development Studies*) tradizioan kokatzen da.



Masterraren irakaskuntza funtsezko bi dimentsio hauen esparru teoriko-metodologikoetan zentratzen da: globalizazioa, arlo ekonomiko zein sozial, politiko edo kulturaleko harremanen eta prozesuen mundializazio-prozesu gisa ulertuta; eta garapenari buruzko ikuspegi teoriko nagusiak, giza garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmatetik landuak. Hala, kontuan hartzen du ere nazioarteko lankidetzak eraldaketa tresna gisa duen eginkizuna.

2025-2026 ikasturtean 40 eskaera jaso ditugu, eta 15 lagun matrikulatu dira lehen aldiz (bederatzi emakume eta sei gizon). Horietatik sei Euskaditik datoz, bost Espainiako Estatuko beste leku batzuetatik eta lau Latinoamerikatik.

### Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Masterra

Masterra ikasleen prestakuntza akademiko eta profesionalera bideratzen da garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan, eta funtsezko erreferentzia gisa ditu ekitatea, pobrezia-aren aurkako borroka, giza garapena eta jasangarritasuna. Kalitatezko eta diziplinarteko lanbide prestakuntza ematen du nazioarteko lankidetzaren esparruan hobeto sartzeko, arlo pertsonalari zein lan arloari dagokienez.

Horretarako, masterrak gai horietan esperientzia eta ibilbide handia duten irakasleak ditu. Horiek unibertsitatetik zein lankidetzako erakundeetatik datoz. Halaber, ikasketa programak derrigorrezko praktikak ere ezartzen ditu hainbat herrialdetan gauzatzen diren garapenerako lankidetzak proiektuetan.

2025-2026 ikasturterako, aurrez izena emateko 66 eskaera jaso ditugu. Lehenengoz matrikulatutako 24 lagunetatik (hogei emakume, lau gizon) zazpi Euskaditik datoz, hamabi Espainiako Estatuko beste leku batzuetatik, bat Europar Batasunetik eta beste lau Latinoamerikatik.



### 2.1.3. Etengabeko prestakuntza

#### Nazioarteko Lankidetzeta eta Hezkuntza Askatzailea *online* Masterra

Hegoa Institutuak koordinatutako master hau EHUren Etengabeko Prestakuntzako eskaintzaren barruan aurkitzen da. Hezkuntza Askatzailearen kontzeptuak eta praktikak modu zabalean lantzen dituen master bakarra da Estatu osoan. Graduondoko proposamen horrek, bada, gaur egungo egoeraren azterketa kritikoa egiten du; izan ere, egoera horretan globalizazio neoliberalaren barruan aurkitzen ditugun krisi anitzak elkartzen dira. Hala, masterrak, azterketa horren bitartez, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza kritikoa eta askatzailea sustatzeko gai diren subjektuak trebatu nahi ditu.

Izan ere, ikasleen lanbide-jarduera lankidetzara, hezkuntzara edo beste edozein arlori bideratuko den alde batera utzita, ikasleak ideia eta praktika alternatiboen ezagutzan trebatzea da helburua. Hala, masterrak gizarte eraldaketara bideratutako ekintza kolektiboak gauzatzeko baliabide teorikoak, gaitasunak eta balioak eskaintzen dizkie, bidezko eta berdintasunezko mundu baten alde egin dezaten. Masterra *online* egiten da bere osotasunean; beraz, munduko edozein lekutatik egin daiteke eta beste jarduera batzuekin bateragarria da.

Masterraren XI. edizioan, 2025-2026 ikasturtean, alegia, titulazioa formatu modularrean ere eskaini dugu: hau da sei edo zazpi irakasgai –kasuaren arabera– eta hiru kredituko modulu amaierako lana eginez, Nazioarteko Lankidetzako edo Hezkuntza Askatzaileko Unibertsitate Espezializazio titulua lor daiteke, hautatutako aukeraren arabera.

Ikasturte honetan hamahiru lagun master osoan matrikulatu dira, beste hiru Nazioarteko Lankidetzako espezialitatean eta bi Hezkuntza Askatzailekoan (guztira, hemeretzi emakume eta gizon bat). Horietatik sei Euskaditik datoz, bederatzi Espainiako Estatuko beste leku batzuetatik, bat Europatik eta hiru Latinoamerikatik.

## 2.2. Hegoak antolatutako mintegiak eta jardunaldiak

### Unibertsitate-masterretako mintegiak eta jardunaldiak

Ikasturtean zehar, *Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta* eta *Globalizazioa eta Garapena* masterretako ikasleei zuzendutako hainbat jarduera antolatu dira. Hala ere, mintegiak irekiak izan dira, landutako gaietan interesa zuen beste edonork ere parte har zezan.

1. “Técnicas de investigación”. Carmen Etxebarria Miguel, urtarrilaren 8an, 13an, 22an eta 24an.
2. “Sexualidad y Cultura: cánones de belleza, diversidad de encuentros, libertad y barreras culturales, y el papel de los cooperantes”. Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional, urtarrilaren 10ean.
3. “Diversidad sexual y de género en la Agenda de los Derechos Humanos: Metodologías para la investigación de la realidad LGTBI”. Aimar Rubio Llona, otsailaren 7an.
4. “Comunicación y Cooperación, la información en un mundo ¿conectado?”. M<sup>a</sup> Ángeles Fernández eta Jairo Marcos, Desplazados.org, otsailaren 10ean.

5. "Trabajo comunitario en Guatemala". Asociación Política de Mujeres Mayas (MOLOJ) eta Asociación de Servicios Comunitarios de Salud (ASECSA), otsailaren 17an.
6. "Cooperación, ecología y (pos)desarrollo". Florent Marcellesi, martxoaren 10ean eta 11n.
7. "Economía feminista". Amaia Pérez Orozco, martxoaren 26an eta 27an.
8. "Desarrollo rural, empleo y pobreza en África". Carlos Oya, ekainaren 4an eta 5ean.
9. "La investigación como aporte a la contranarrativa acerca de la situación del pueblo saharauí". Abderrahman Taleb Omar, Tifaritiko Unibertsitateko Ikerketa Zentroaren koordinatzailea, urriaren 23an. Mintegi horretan ere Hegoaren Dokumentazio Zentroaren (CDOC) aurkezpena ere egin zen, tailer praktikoaren bitartez ere.



Urriaren 23ko mintegia

10. "Masculinidades y derechos LGBTIQ+ desde Guatemala", Roberto Landaverry Estrada (Mantzolojya) y Robby Pérez Hernando (TransFormación), Entreamigos/Lagunartean, urriaren 28an.
11. "Migraciones". Helena Maleno (Caminando Fronteras), Mamadou Dia (Hahatay elkartea) eta Bakerako Lankidetzeta Batzarrea/Asamblea de Cooperación por la Paz (BLB/ACPP Euskadi), urriaren 28an.
12. "Reflexionando los sistemas de dominación y las jerarquías sociales desde las metodologías de la educación popular". Zumalabe Fundazioa, azaroaren 7an.
13. "Defensoras del territorio-Extractivismo en Guatemala". Sandra Pérez, Aidé Zorin eta Claudia Guillén, MPDL (Movimiento por la Paz), abenduaren 2an.
14. "Seminario teórico práctico de Educación Emancipadora (I)". Hegoako Hezkuntza Taldea, Amaia del Río eta Juanjo Celorio, abenduaren 4an.
15. Mahai-ingurua: "Soberanía Alimentaria y Justicia Climática desde una perspectiva feminista y decolonial". Emma Siliprandi, Lourdes Huengo eta Mirene Begiristain, Leticia Urretabizkaia, abenduaren 19an.

Gainera, abenduaren 14an aurrez aurreko GGKEen Azoka egin genuen. Horretan, aurrez aurreko masterren *curriculumeko eta curriculumaz* kanpoko praktikei buruzko laguntza eta orientazioa eman zen. Master horietako ikasle izandako zenbait lagunek ere parte hartu zuten, erakunde



horietako batzuetan lan egiten ari baitziren (batez ere praktketan). Hortaz, jarduera bakar horretan GGKEen, praktiken eta lan-irteeren aurkezpena egin zen.



*Abenduaren 19ko mintegia.*

### **Garapenari buruzko Ikasketak Doktorego Programako mintegiak**

Doktorego Programako mintegiek doktore-tesia egiten ari diren ikasleen prestakuntza eta harremana sustatzeko helburua dute. Gainera, mintegiak eztabaidatzeko eremua dira, hain zuzen ere, beren ikerketa prozesuan egindako aurrerapenak eta sortutako kezkek adierazteko.

2025ean, mintegi horiek berritzeko ardura duen batzordea edo talde eragilea berritu genuen, Hegoako doktoratu aurreko eta ondoko langileen protagonismoa handituz, eta honako hauek garatu genituen:



- “Sanar con la tierra: sistemas alimentarios nutricionales agroecológicos regionales en Argentina”. Nadia Alexandra Balmaceda (Kordobako Unibertsitate Nazionala, Argentina), irailaren 24an.
- “¿Qué hace a mi investigación feminista? Teorías feministas sobre epistemología, metodología y otras movidas.” Tania Martínez Portugal (Hegoa, EHU), azaroaren 6an.
- “Seminario de avances de tesis: construcción de paz”. Doktoregoa egiten ari diren hiru lagun, iker zirion landaluzek koordinatuta (Hegoa-EHU), abenduaren 10ean.

## **Feminismoari, Gatazkei eta Giza Eskubideei buruzko Prestakuntza Mintegi Iraunkorra (2025)**

Mintegia Hegoaren etengabeko prestakuntzako eremu bat da, eta eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren diru-laguntza du. Haren helburua giza eskubideekin lotutako gaiak lantzea da, eta, horretarako, azterketa eta proposamen feministak erabiltzen ditu, hain zuzen ere, diskurtso beliko eta militaristei eta eskubideen aurkako diskurtsoei aurre egiteko asmoz.

### **“Acción feminista frente a la escalada bélica”**

**(Bilbon, maiatzaren 28an)**

Mintegiaren lehenengo saio hori tokiko eta mundu mailako diskurtso eta praktika militaristak eta emakumeen eskubideetan dituzten ondorio horiek identifikatzera bideratu zen, baita feminismoek gerraren eta militarizazioaren aurrean dituzten posizionamenduak ezagutzera ere. Saioan honako hauek hartu zuten parte: Sanja Pavlovic (Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeak taldekoa), María Villellas (Escola de Cultura de Pau, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) eta euskal kolektibo feminista antimilitaristetako ordezkariak: Ana Ribacoba, Emakumeok Gerraren Aurka kolektibokoa (Gasteiz) eta Alicia Suso, Armiarma taldekoa (Bilbo).



### **“Perspectivas feministas sobre paz y derechos humanos desde las diásporas”**

**(Bilbon, urriaren 17an)**

Mintegiaren bigarren saio horretan diasporatik giza eskubideen eta bakearen eraikuntzaren alde egiten den aktibismoa aztertu genuen, eta, hain zuzen, emakume erbesteratuen esperientzian zentratu ginen. Saioan honako hauek parte hartu zuten: Majadeh Bozorgi (Iran), Giza Eskubideen Elkarte Irandarreko idazkaria; Helga Flamtermesky (Kolonbia), Bartzelonako Mujer Diáspora eremuaren koordinatzailea; eta Fatma Galia M. Salem (Mendebaldeko Sahara), Kazetari eta Idazle Sahararren Ligako arduraduna Europan.

### **“Reflexiones sobre el Derecho Internacional en los conflictos armados en un contexto de regresión patriarcal”**

**(Bilbon, azaroaren 26an)**

Mintegiaren hirugarren saioan, Nazioarteko Zuzenbidearen “batez ere Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen” azterketa kritiko feministan



sakondu genuen. Horretarako, honako hauek izan genituen: Ana María Palacios, abokatu feminista eta Amarantas kolektibo feminista eta antirrazistaren fundatzailea; Mónica Alonso, Mundubat Fundazioaren nazioarteko koordinatzailea; eta iker zirion landaluze, EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakaslea eta Hegoako kidea.

### Mintegia: “Crisis y policrisis” (Bilbon, otsailaren 19an)



Hegoak eta EHUko Ekonomia Aplikatua Sailak antolatutako mintegi horretan, Eduardo Gudynas ikertzaile eta idazle uruguaitarrak parte hartu zuen. Gudynasek, besteak beste *Amazonía. Transiciones y alternativas antes del colapso* (2024) lana idatzi du, eta, mintegian azaldu zuenaren arabera, gure garai hau gero eta konplexuagoa da; izan ere, askotariko krisiak bizi ditugu. Krisi horiek, bada, haien artean gainjartzen dira, abiadura desberdinetan garatzen dira eta eskala anitz dituzte, eta horrek polikrisiaren kontzeptua ekartzen digu. Hizlariaren esanetan, krisiaren kontzeptua denbora eta toki espezifiko batean kokatzen den aldaketa edo kolapso bat da, eta adierazleen bitartez neurtu edo kuantifika daiteke.

### Tailer ekosozialak

(Neivan, martxoaren 13an eta apirilaren 11n; Popayánen, irailaren 6an, urriaren 22an, 23an eta 29an eta azaroaren 6an)



Tailer ekosozialak Kolonbian egin ziren, Hegoaren *Articuladxs* proiektuaren esparruan, eta eLankidetzaren diru-laguntza izan dute. Hego Kolonbiako Unibertsitateak bi eguneko programa diseinatu zuen: lehenengo eguna unibertsitatean bertan izan zen eta bigarrena La Jagua herrian (Garzón udalerrian). Azken horretan, ingurumen esperientziak zuzenean ezagutzeko aukera izan zen. Estraktibismoarekin eta kolonialismo energetikoarekin, memoria biokulturalekin eta ingurumen hezkuntzarekin lotutako kontuak landu genituen. Bere aldetik, Caukako Unibertsitateak bost saioko/eguneko tailerrak egin zituen: arte eta hezkuntza kritikoa, idazketa eta hausnarketa etnografikoa, justizia epistemikoa genero ikuspegiarekin, memoria kolektiboak eta nekazaritza ikasketa kritikoak Kolonbian.

## Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko VIII. Jardunaldiak: “Eraikuntza komunitarioaren erronkak gizarte eraldaketan”

(Donostian, apirilaren 3an)



Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, eLankidetzak eta Hegoak elkarrekin antolatutako jardunaldi horiek (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategian sakontzeko helburua zuten. Gai nagusia gizarte eraldaketaren eraikuntza komunitarioa izan zen; hura funtsezko kontua baita lurraldeko gizarte ehuna sustatzeko eta hezkuntza-ekintza guztion onarekiko konpromisora bideratzeko. Jardunaldietan Maider Elortegi Uriartek (Latinoamerikako Ikasketak Graduondokoa Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan) eta José Luis Fdez. “Kois” Casadevantek (elikadura burujabetzan aditua Andaluziako Unibertsitate Internazionalean) parte hartu zuten, baita beste erakunde hauetako ordezkariak ere: Instituto de Facilitación y Cambio, Kaleko Afari Solidarioak, SOS Arrazakeria eta Colectivo Alternativo de Aprendizajes CALA.

## Lan akademikoak hezkuntza askatzaileko ikuspegi baten arabera egiteko mintegiak (Popayánen, abuztuaren 14an, 21ean eta 28an eta irailaren 18an eta 25ean)

Mintegi horiek Kolonbiako Caucaoko Unibertsitateak eta Corporación Ensayos erakundeak antolatu zituzten, Hegoaren *Articuladxs* proiektuaren esparruan, hain zuzen ere, Caucaoko Iparraldean lurraldeko prozesu sozialei lotutako ikerketak aurkezteko. Bost saio izan ziren: 1. Gatazka armatua ikertzea emakume atzerritarra izanda, ikerketa kritiko baten erronka metodologikoak; 2. Ekonomiak ikuspegi feminista eta kulturartekoetatik ikertzea; 3. Iraganeko ehunak eta sareak: memoria komunitarioak, nekazariak eta indigenak ikertzea; 4. Ikerketa mintegiak ikerketa kritiko eta konprometitutan trebatzeko eremu gisa: Caucaoko iparraldeko herri beltzaren lurraldeei eta lurraldetasunei buruzko proiektuaren esperientzia; eta 5. Gazteak gatazka armatuko testuinguruan: ikerketaren erronkak.





## **Ikerketa-Ekintza-Partaidetzari buruzko Jardunaldiak**

(Popayánen, irailaren 4an eta 5ean; Neivan, irailaren 8an eta 9an)

Jardunaldiak Caucaoko Unibertsitatearen (UNICAUCA), Hego Kolonbiako Unibertsitatearen (USCO) eta Hegoaren artean antolatu ziren. UNICAUCAk antolatutako horiek “Compromiso, investigación y acción. Jornadas de reflexión a cien años del natalicio de Orlando Fals Borda” izenburua izan zuten, eta, bertan, Ikerketa-Ekintza-Partaidetza (IEP) metodologiaren aitzindari den ikertzaile horren lana aztertu zuten, baita gizarte ikerketan izandako eragina ere. Jardunaldietan Kolonbiako zenbait unibertsitatetako hizlari garrantzitsuak izan ziren, hala nola José María Rojas (Universidad del Valle), Diego Jaramillo eta Carlos Corredor (Caucaoko Unibertsitatea), Carlos del Cairo eta Maite Yie (Javierana Eliz Unibertsitatea), baita erakunde indigenen eta komunitateen bidelaguntzan eskarmentu handia duten beste ikertzaile batzuk ere (esate baterako, María Teresa Findji eta Camila Azcárate).



USCOk antolatutako jardunaldiek, “Saberes colectivos desde la Investigación Acción Participativa en los territorios” izenekoek, Huilako departamenduko eta beste lurralde batzuetako elkarrizketa eta esperientzia aniztasuna aurkeztu zuten, bai hezkuntzakoa eta bai komunitarioa. Bi eguneko irakasle eta kolektibo hauek, besteak beste, lan eremuak antolatu zituzten: Axel Rojas (Caucaoko Unibertsitatea), Víctor Negrete (Sinúko Unibertsitatea) eta Miller Dussán (USCO), Kolonbiako Red de Semillas Libres sarea, El Hormiguero eta Jóvenes al aire kolektiboak.


## **Semillas regadas liburuaren aurkezpena**

(Bilbon, irailaren 30ean)

*Semillas regadas* lana emozioak eta memoria kolektiboa idazketaren bitartez lantzeko prozesu baten emaitza da. 2024an, Kolonbiako Egiaren Bazordeak (EB) “bigarren belaunaldiak” izendatutako taldeko hamar lagun birtualki elkartu ziren, eta, sei hilabetez, erbesteari eta migrazioari lotutako sentimenduak, esanahaiak eta erronkak adierazi zituzten. Beldurrak, minak eta zalantzak izan ziren; baita indarra ere, indar kolektiboa, alegia. Hala, taldeak Mariana Schmidt Quinteroren orientazioa –diseinu metodologikoaren, tailerrak erraztearen eta koordinazio editorialaren bitartez– eta Claudia Moreno Garcíaren laguntza psikosoziala izan zituen.

Prozesu horretatik sortutako liburua haren egileetako batzuek aurkeztu zuten 2025ean Bilbon, hain zuzen ere, hauek: Anne-Elizabeth Saldarriaga Vélez Magnusson, Andrés Buitrago, Diana

Granda Restrepo, Gisela Restrepo Triviño, Niko Forero Rodríguez eta Nicolás Quimbayo Vásquez. Ekitaldian Mariana Schmidt Quintero eta Claudia Moreno García ere izan ziren. Hegoak lagundu egiten ditu Egiaren Batzordearen Ondarea Babesteko Erbesteko Sarearen (REL) ekintzak Europan. Ekintza horiek, gainera, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren babesa dute. Hala, liburuaren aurkezpena laguntza horren barruan kokatzen da.



### Trantsizio ekosozialak andeetako lurraldeetan (Bilbon, urriaren 3an)

Mintegia kooperatiben, gizarte mugimenduen eta unibertsitateen arteko aliantzatik sortzen da. Horretan, Boliviako, Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko trantsizio ekosozialeko zenbait prozesu aurkeztu zituzten Bilbon. Trantsizio ekosozialen hainbat dimentsio kontuan hartuta – esate baterako, ingurumenekoa, gizarte antolakuntzako, parte hartzekoa eta gobernantzakoa, generokoa, belaunaldi artekoa eta kulturala–, mintegian Ekonomia Sozial eta Solidarioarekiko lotura landu zen. Mintegi hori Hegoaren “Ekonomia Sozial eta Solidarioaren tokiko ekosistemetan gaitasunak eta aliantzak indartzea, eskualde andetarreko lurraldeetako trantsizio ekosozialetan laguntzeko” proiektuaren parte da. Proiektua eLankidetzaren laguntza du.



Mintegian honako hizlari hauek parte hartu zuten: Virginia Tipanluiza eta Blanca Margarita Quishpe Coyago (Consejo de Productoras Agroecológicas del Cantón Cayambe, Ekuador); Rosa Piedad Quimpia Chico (Fundación SEDAL, Cayambe eta Moncayo, Pichincha, Ekuador); Clelia Vizney Palacios Illescas (Instituto para el Desarrollo Rural de Sudamérica, Bolivia); Corina Limachi Padilla eta Lucía Lobo Rojas (Asociación de Apicultores del Municipio de Macharetí AAPIMMACH, Bolivia); Miguel Ignacio Quispe Lamberto eta Gissela Leticia Enríquez Gamarra (Cooperativa Agraria Cafetalera Pangoa, Peru); Holy Noemí Rocha Vasquez (Cooperativa Agraria Cafetalera Satinaki, Peru); Irene Tenorio Guasaquillo (Hilando Territorio Orgánico emakumeen erakundea, Kolonbia); Claudia Patricia Cruz (COOMAMCE kooperatiba, Kolonbia);



Yudy Yohana Ortiz (Cooperativa Multiactiva Ecomun Esperanza del Pueblo, Kolonbia), eta Ana Mile Bermúdez Rodallega (Asociación de Mujeres Afrodescendientes del Norte del Cauca - ASOM, Kolonbia).

**1325 Ebazpenaren 25. urteurrena:  
Emakumeak, bakea eta segurtasuna erbestearen eta diasporaren lurraldetik**  
(Online, urriaren 24an; Bilbon, urriaren 31n)



2025eko urriaren 31n, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak hogeita bost urte bete zituen. Erbestea eta migrazioa eragiletasun politikoko, askotariko emakumeen mobilizazioko eta bakegintzako lurralde gisa aldarrikatzeko helburuz, Hegoak eta Kolonbiako Egiaren Batzordearen ondarea laguntzeko Generoko Talde Internodalak, (GIG) Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren laguntzaz, oroimenezko bi une antolatu zituzten.

Urriaren 24an, Ebazpenaren jatorriari eta garapenari buruzko mintegi birtuala antolatu zen. Hura Bartzelonako Emakume Errefuxiatu, Erbesteratu eta Migratuen Kolektiboko eta Generoko Talde Internodaleko (GIG) kide den María del Rosario Vásquez Sepúlvedak eman zuen. Bigarren jarduera aurrez aurreko jardunaldi bat izan zen. Horretako saio nagusian honako hauek parte hartu zuten: Catalina Gil Pinzón, Colectivo de Mujeres por la Seguridad Transatlántica taldekoa; Carmen Geha, arabiar eskualdeko genero arloan eta politika inklusiboetan aditua; Helga Flamtermesky Restrepo, Red Latinoamericana de Mujeres, Paz y Seguridad sarekoa; eta Gina Wirz-Suárez, Geneva Graduate Institute zentroko ikertzailea. Saio horren ostean, lan-mahaiak egin zituzten, Ebazpenaren lau oinarriak lantzeko: emakumeen partaidetza politikoa eta lidergoa bakearen eraikuntzan; erreparazioa, justizia eta memoria; indarkeriaren prebentzioa; eta babesa eta bizi-baldintza duinak.

**Jardunaldia: “Ahanzturaren kontra: frankismoaren biktimak eta Mendebaldeko Sahara”**  
(Bilbon, azaroaren 19an)

Jardunaldi hori frankismoan zehar saharar herriaren aurka egindako krimenak argitzeko, eta biktimak Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Legearen esparruan aintzatesteko antolatu zen. Jardunaldia, bada, Hegoak Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen arloan egiten duen lanean kokatzen da, eta Euskal Fondoaren, Euskadiko Saharar Ordezkaritzaren, Bilboko Udalaren eta Tokiko Elkartasunerako Europako Egunak Plataformaren laguntza izan zuen.

Ebbaba Hameida kazetaria AFAPREDESA preso eta desagertu sahararren senideen elkarteko presidente Abdeslam Aomarrekin aritu zen. Aomar, izan ere, jardunaldian aurkeztutako *Saharais. Las otras víctimas del franquismo y postfranquismo. Memoria, desmemoria y responsabilidades del Estado español* (2025) liburuaren egilea da, eta Espainiaren eta Mendebaldeko Sahararen arteko harremana aztertu zuen, kolonialismoaren eta trantsizioko justiziaren ikuspegitik. Ondoren, Laura Casielles idazleak honako partaide hauek izan zituen mahai-ingurua moderatu zuen: Carlos Martin Beristain Psikologian doktorea eta giza eskubideen arloko ikertzailea eta Gemma Arbesú abokatua eta begirale internazionala. Jarraian, frankismoaren zenbait biktima saharar eta euskaldunek beren oinaze eta dolu esperientziak partekatu zituzten, baita egia, justizia eta erreparazio eskakizunak ere. Honako hauek izan ziren parte hartu zutenak: Judeig A. Lemadel (AFAPREDESA), Elmami Ahmed-Salem (Bairiren Senideen eta Lagunen Elkartea), Josu Ibargutxi (Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma) eta Nerea Martínez (Martxoak 3). Azken mahai-inguruan frankismoaren biktima sahararrekiko erantzukizun

politikoa landu zuten, eta, horretan, EH Bildu, EAJ eta Sumar alderdietako ordezkariak izan ziren. Jardunaldian, *Rastros* memoriale ere aurkeztu zen. Hura Lab Elemental eta Forward Films ekimenek diseinatutako arte digitaleko instalazioa da.



### Jardunaldia: “Kontrahegemoniatik ikertu. Orinaldi-etorkizun emantzipatzaileak eraikitzen dituen memoria”

(Gasteizen, azaroaren 20an)

Jardunaldi horren bitartez, unibertsitateak eta aktibismoak memoria historikoaren lehian eta ikerketa kritiko eta kokatuaren aldeko defentsan duten eginkizunari buruz hausnartu genuen. Lehen mahai-inguruan “Recuperar y co-construir memorias en el aula y en la calle” izenekoa, Begoña Zabalak (Emakume Internazionalistak) eta Ignacio Rivasek (Malagako Unibertsitatea) parte hartu zuten. Bigarrenean, aldiz, Hegoaren *Articuladxs* proiektuan ikasitakoa ikusi genuen, tokiko-global ikuspegi batetik. Gainera, bi hitzaldi izan ziren. Batetik, Julen Díaz Argotek Martxoak 3 elkartearen memoriaren arloan egiten duen lana aurkeztu zuen; eta, bestetik, EHUKo legelari eta katedratiko Maggy Barrère-k unibertsitateak ikerketa kritikoko ariketak garatzera animatu zuen.





## 2.3. Graduondoko beste unibertsitate prestakuntza batzuetan izandako parte-hartzea

Jarraian, Hegoako irakasle eta ikertzaileek (IIP) parte hartutako graduondoko beste prestakuntza batzuk aurkeztuko ditugu:

Máster Propio en Cooperación para el Desarrollo. Zaragozako Unibertsitatea. Irakasgaia: Pedagogía para la transformación social.

Enpresari Aplikatutako Ekonomia Zirkularra Etengabeko Prestakuntza Masterra. Irakasgaia: Sectores Estratégicos en Economía Circular.

*Ekonomia Sozial eta Solidarioa* Masterra. GEZKI Institutua, EHU. Irakasgaiak: Economía feminista; Finanzas éticas; Economía Social y Solidaria (ESS): teoría y desarrollos; Intervención pública y ESS; La Economía Social y Solidaria en la Cooperación al Desarrollo; Organización y administración de las entidades de ESS (gestión financiera).

*Ikasketa Feministak eta Generokoak* Unibertsitate Masterra. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, EHU. Modulua: Políticas sociales, económicas e igualdad; Retos de la globalización. Irakasgaiak: Economía feminista; Género, instituciones y políticas; Políticas sociales, económicas e igualdad; Retos de la globalización.

*Nazioarteko Ikasketak* Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaiak: Conflictos, seguridad y desarrollo; Fundamentos del Orden Jurídico Internacional.

*Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna. Berdintasun Eragileak* Etengabeko Prestakuntzako Masterra. EHU. Irakasgaiak: Presupuestos Públicos desde la perspectiva de género.

*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Baxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza* Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaia: Ekonomia eta enpresa osagarriak.

ALDATUZ: Jasangarritasunerako Aldaketaren Lidergoa eta Kudeaketa (EHUren berezko titulua). Economic Thoughts. II.

*Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa* Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaia: Políticas activas de empleo; Análisis del funcionamiento de los mercados laborales.

*Gobernantza eta Politika Ikasketak* Unibertsitate Masterra. EHU. Irakasgaiak: Una aproximación crítica a la democracia y a la gobernanza desde el enfoque de capacidades y el desarrollo humano; Teoría Política en el siglo XXI. Saioa: Género, poder, conflictos y construcción de paz: aportes desde las teorías feministas.

*Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna. Berdintasun Eragileak* Etengabeko Prestakuntzako Masterra. EHU. Irakasgaiak: Economía Feminista y Presupuestos Públicos con perspectiva de género.

*Telekomunikazio Ingeniaritzako* Masterra. EHU. Irakasgaiak: Integración de las tecnologías de la telecomunicación en la sociedad; Sistemas electrónicos de comunicaciones.

*Ingurumena, Iraunkortasuna eta GIH* Berezko Masterra. Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra, EHU. Irakasgaiak: Conflictos ecosociales y derechos humanos; Tecnologías para el Desarrollo Humano y la Sostenibilidad.

*Partaidetza eta Komunitate-Garapena* Masterra, EHU. Feminismos y Participación blokeo saioa.

Máster Oficial en Relaciones Internacionales y Estudios Africanos. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikoen eta Nazioarteko Harremanen Saila. Irakasgaia: Globalización, integración regional y cooperación al desarrollo en África.

Máster en *Relaciones Internacionales*, Máster en *Seguridad Internacional* y Máster en *Políti-*

cas *Públicas*, IBEI - Institut Barcelona d'Estudis Internacionals. Irakasgaia: Gender, Security and Development.

*Subiranotasuna Europako Herrietan* Unibertsitate Masterra, EHU. Nazioarteko Harremanak eta diplomazia blokeko saioa.

*Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea* Master Ofiziala. EHU, Guatemalako Hi-

riko Rafael Landívar Unibertsitatean emana. Irakasgaia: Retos del Constitucionalismo en el Siglo XXI: Derecho y políticas migratorias europeas.

*Indarkeria Matxistak: Sareko Esku-hartzea* Etengabeko Prestakuntzako Masterra, EHU. Irakasgaia: El feminismo como marco de referencia para la comprensión y el abordaje de las violencias machistas.

## 2.4. Emandako hitzaldiak eta tailerrak

Atal honetan, Hegoako irakasle eta ikertzaileak (IIP) eta lantaldeko beste kide batzuek emandako hitzaldiak eta tailerrak bilduko ditugu:

“Entender las crisis ecosociales para actuar sobre ellas. La Educación transformadora en el aula”. Curso *Educación para el Desarrollo y la Transformación Social: Los ODS en el nuevo marco curricular*. Irakasleak prestatzeko zentroa. Santanderren, urtarrilaren 27an.

“Soberanía alimentaria con enfoque de género en los centros de secundaria. Marco teórico-pedagógico”. Ikastaroa: *Cambio climático y alimentación. Sembrando entornos alimentarios sostenibles*. Valentzian, urtarrilaren 30ean.

“El papel de las personas exiliadas en el proceso de paz con las FARC-EP y la Comisión de la Verdad de Colombia (CEV)”. *Migración y Colombia. Una nación en el exilio* jardunaldi-tako mahai-ingurua, France Amérique Latine 33. Bordelen, otsailaren 14an eta 15ean.

“Cooperación Universitaria para el Desarrollo” online ikastaroko moduluak: 14. edizioa, otsailean eta martxoan, eta 15. edizioa, irailan eta urrian, EHUko Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritza.

Hitzaldia: “La brecha salarial de género”, Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bilbon, apirilaren 3an.

“Capacitación para la atención de mujeres gitanas víctimas de violencia de género”, *Jabetuz* ikastaroa, Eusko Jaurjaritza-Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea. Online, maiatzaren 5etik 19ra.

“Cooperación internacional en países en conflicto”. *Garapenerako Lankidetzak* hitzaldi zikloan emandako hitzaldia, Sabino Arana Fundazioa. Bilbon, maiatzaren 13an.

*Europarako zubiak: migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako estrategiak indartzen* jardunaldian egindako hitzaldia, Bizkaiko Immigranteen Elkartearen Federazioa (FEDAIB). Bilbon, maiatzaren 30ean.

“Masculinidad y cultura de paz desde diferentes aproximaciones”. Udako ikastaroa: *Masculinidad, cuidados y cultura de paz*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Madrilen, uztailaren 10ean.

“Reflexiones para una agenda feminista antimilitarista”. Sorginenea Emakumeen Etxean egindako zikloko hitzaldia. Gasteizen, irailaren 12an.

“Bizitzaren zaintzak erdigunean = Los cuidados de la vida en el centro”. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako ikastaroaren moduluak. Irailaren 22tik urriaren 26ra.

“Teorías del Desarrollo: un viaje hasta los principios del desarrollo humano”. *Garapena, Lankidetzak eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiei buruzko XXVI. Mintegia*, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Bilbon, urriaren 10ean.

*Justicia Transicional en España y América: pasado y presente* nazioarteko jardunaldian egindako mahai-ingurua, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa (UAM). Urriaren 15ean.



Prestakuntza tailerra: “Fortalecer el diálogo Intergeneracional”, ONG USOFORAL, ACP-Prekin eta Gernika Gogoratzuz zentroarekin batera. Senegaleko Ziguinchor hirian, azaroaren 3tik 5era.

Casamanceko (Senegal) gatazka armatuaren memoria gizartearen eraikitzekeo tailer komunitarioak Nyassia eta Boutoupa-Camaracounda komunetan, ACPPrekin eta Gernika Gogoratzuz zentroarekin batera, Senegalen, azaroaren 5ean eta 6an.

Hitzaldia: “Tercer Plan Operativo para la reducción de la brecha salarial de género en Euskadi”, Emakunde Emakumearen Euskal

Erakundea. Gasteizen, azaroaren 20an.

“Gosetea: genozidiorako arma Gazan” / “El hambre como arma para el genocidio en Gaza”, Khalas! Palestina – Uribe Kosta kolektiboak antolatutako hitzaldiak. Algortan, azaroaren 13an eta abenduaren 11n.

“Género, conflictos opresión y resistencia”. Emigrad@s Sin Fronteras erakundeak antolatutako *Bide Seguruak eta Migrazio Erronkak: Lurraldetik Etorkizuna Eraikitzen* foroaren zikloan egindako hitzaldia. Donostian, azaroaren 21ean.

## 2.5. Beste ekitaldi batzuetan izandako parte-hartzea

Jarraian, Hegoako langileek zein Institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileek egindako beste kolaborazio batzuk laburbilduko ditugu:

Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailarrikiko lankidetzak. Esku-hartze psikosozialeko metodologia hobetzeko proiektua: GESIS tresna informatikoa.

Gernika Gogoratzuz zentroak antolatutako “Bakea Lotura Hirukoitzean” IV. Mintegiaren koordinazio akademikoa. Zubiria Etxean, Bilbon, otsailaren 10ean.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatutako “Menderatzearen geopolitikari aurre egiteko estrategiak” mahai-inguruaren moderazioa. Bilbon, ekainaren 16an.

Bogotako Javierana Unibertsitateko Semillero de Género y Construcción de Paz taldearen mintegien antolaketan eta ikerketa jardueretan (lekukoak jasotzea) parte hartzea. Bogotan, otsailatik ekainera.

*Euskal Herriko Ekonomiako Olinpiadak* (2025 ikasturtea) antolatzekeo batzordean parte hartzea, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, EHU. Bilbon, martxoaren 28an.

*Ekonomia Kritikoaren XXI. Jardunaldiak* (2025 ikasturtea) antolatzekeo batzordean parte hartzea, EHU. Jardunaldiak Bilbon izango dira, 2026ko ekainaren 10etik 12ra.).

“Bakea eztabaida humanitarioetan eta garapenarenean. Mozambikeko kasuaren azterketa” *Lotura Hirukoitzari buruzko V. Mintegiaren* koordinazio akademikoa, Gernika Gogoratzuz. Gernika-Lumon, apirilaren 23an eta 24an.

“Etorkizuneko lurraldeen kartografiak” Gernikako Kultura eta Bakearen XXXIV. Nazioarteko Jardunaldien koordinazio akademikoa, Gernika Gogoratzuz. Gernika-Lumon, apirilaren 23an eta 24an.

*Lotura Hirukoitza Erkidegoetatik* Nazioarteko Mintegiaren Batzorde Akademikoa, CEAP, Gernika Gogoratzuz eta Ayuda en Acción erakundeek antolatua, Mozambikeko Unibertsitate Katolikoa. Mozambikeko Pemba hirian, ekainaren 10ean eta 11n.

*VIII. Bake Ekonomia, Euskal Enpresa eta Giza Eskubideen Laborategiaren* ondorien sintesia, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, ehuGune, Gernika Gogoratzuz. Bilbon, irailaren 24an.



## 3. Ikerketa jarduerak

### 3.1. Ikerketa taldeak, ildoak eta proiektuak

2025ean ikerketa jarduera ugari bultzatu dituzte Hegoako ikerketa taldeek eta ildoek. Lan horretarako lagun askok eraikitzeko eta partekatzeko eremu kolektiboetan parte hartu behar izan dute, bai Institutuko horietan eta bai gure inguruko eta lan egiten dugun herrialdeetako erakunde aliatuen eremuetan.

Ikerketa talde horiek hurrengo orrialdeetan aipatuko ditugun proiektuen exekuzioan parte hartu dute. Ekimen horien esparruan hainbat argitalpen ere egin eta zabaldu ditugu. Horiek garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzko pentsamendu kritikoa sortzeko helburua izan dute.

#### 3.1.1. Tokiko giza garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa

Ikerketa talde horren jarduerak bi funts teoriko hauetan oinarritzen dira: a) giza garapena erreferentzia normatibo gisa, gaitasunen ikuspegian oinarritua, pertsonen, erakundeen eta gizartearen aukeren eta indarren garapen prozesua zentralizat hartzen duena eta hark ongizatearen dimentsio kolektiboak ikertzeko duen garrantzia nabarmentzen duena; eta b) tokiko dimentsioa, lurraldea giza garapenari lotutako aldaketa prozesuak ikertzeko erreferentziatzen hartzen duena, baita garapena finkatzeko zailtasunak eta aukerak azaltzen dituzten dinamikak aztertzeko ere.



2025ean, ikerketa eta prestakuntza jarduerak Ekonomia Sozial eta Solidarioari (ESS) lotuta egon dira batez ere. Hegoak eLankidetzaren diru-laguntzaz egiten dituen proiektuen esparruan jarduerak egin ditu taldeak, eta aholkularitza zerbitzuak eman dizkie foru aldundiei. Halaber, Andeetako eskualdeko zenbait unibertsitateen laguntza izan du hainbat lan batzordeetan. Taldeko kideek artikulua argitaratu dituzte eta ikastaroetan, hitzaldietan eta biltzar akademikoetan parte hartu dute.

**Taldeko kideak:** Jokin Alberdi, Asier Arcos, Eduardo Bidaurratzaga, M<sup>a</sup> Luz de la Cal, Maitane Campos, Marian Díez, Maite Fernández-Villa, Xabier Gainza, Amaia García Azpuru, Raquel García, Luis Guridi, Elena Martínez Tola, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Carlos Puig, Unai Villalba.



### **Caucan lurraldea berriz sartzea eta bakerako lankidetzeta, sareko produkzio-gaitasunak ikuspegi bereizgarriarekin indartuz. II. fasea (PRO-2023K2/0005)**

Proiektua 2025ko azaroan bukatu zen, eta Caucaoko erakunde komunitarioen plataformaren (POCC) eta emakumeen erakundearen gaitasuna teknikoak, produktiboak eta artikulazioak indartzeko helburua izan zuen. Hala, ekonomia sozial eta solidariotik eta ekonomia feministatik, eta ikuspegi diferentziala erabiliz, taldeak prestakuntza eta aholkularitza teknikoa eman zuen. Halaber, Caucaan ekoizpena itzultzeko prozesua laguntzen jarraitu zuen, lurraldeko bakea laguntzeko landa garapen iraunkorreko estrategien bitartez. Proiektua tokiko partzuergo baten bitartez garatu zen, eta horretan Instituto de Estudios Interculturales (IEI) institutuak, Caliko Javienara Unibertsitateak eta Corporación Ensayos taldeak parte hartu zuten.



Bigarren fasean, aurreko proiektuen emaitzak finkatu ziren. Horretarako, prestakuntza tekniko espezializatua eman zieten POCCeko erakundeei, batez ere emakumeen erakundeei, eta horiek beren autonomia ekonomikorako proposamen produktiboak egin zituzten. Martxoan, LORRA kooperatibak laguntza teknikoa eman zion POCCri, bai erakundearen Caucaoko egoitzan eta bai landa-eremuko zenbait ekimenetan ere. Horretan, POCCeko oinarrizko taldeak parte hartu zuen, hain zuzen ere, 2024an, LORRAREN Lezamako egoitzan prestakuntza jaso zuen talde berak. Emakumeen erakundeei emandako prestakuntza hori sakondu egin zen irailean, Corporación Ensayos eta IEI erakundearen bitartez. Izan ere, hamaika emakume horiek praktikak egin zituzten Ekuadorren, Quitoko, Cayambeko eta Cuencako ekonomia feminista eta solidarioko ekimenen elkartruke batean. Gainera, urrian, Caucaoko lau emakumek eta Boliviako, Ekuadorreko eta Peruko bederatzi erakundeak praktikaldi bat izan zuten Euskadin, ekoizpen agroekologikoko euskal erakunde eta kooperatiba feministekin egindako elkartruke batean, besteak beste, hauekin: Maskilu (Zeberio), Lakari (Zarautz) Elikagune eta Urkome LGE (Azpeitia), Lorra (Lezama), Etxaldeko Emakumeak (Fruiz) eta Eztikidetzeta (Galdames).

Proiektu horrekin, Caucaoko iparraldean ekoizpena berriz itzultzeko esperientziaren sistematizazioa egin zen; izan ere, esperientzia hura bakearen eraikuntzako eta Ekonomia Sozial eta Solidarioan eta Ekonomia Feministan oinarritutako lurralde garapenerako erreferente bat da. Horretan, Hegoako Karlos Pérez de Armiñok eta IEIko Carlos Acevedo Lassok parte hartu zuten.

Proiektuak elankidetzaren diru-laguntza izan du, 298.881,02 eurokoa.



***Ekonomia Sozial eta Solidarioaren tokiko ekosistemetan gaitasunak eta aliantzak indartzea, eskualde andetarreko lurraldeetako trantsizio ekosozialetan laguntzeko (II. fasea) (PRO-2024K2/0005)***

Proiektuak jarraipena ematen dio 2024an bukatutako faseari, eta, hala, andeatako lau herrialdeetako erakundeen eta kooperatiben gaitasunak indartu nahi ditu, trantsizio ekosozialak laguntzeko; eta horretarako tokiko eta euskal herriko unibertsitate erakundeekin antolatzen dira. Chaco guarani eskualdean (Cuquisaca, Bolivia), erlezaintzako elkarteekin lan egiten dute; Peruko erdialdeko oihanean, kafe kooperatibekin; Ekuadorreko Cayambe eta Quiton, emakume ekoizle agroekologikoekin eta kontsumo kooperatiba batekin, hurrenez hurren; eta Cauca (Kolonbia), bakea sinatutako kooperatibekin, eta Nasa Herriaren kabildo indigenekin aliantzan.

Prozesuan hainbat unibertsitatek eta Andeatako tokiko hainbat erakundek parte hartzen dute, hala nola Boliviako Hego Amerikaren Landa Garapenerako Institutuak (IPDRS), Ekuadorreko Unibertsitate Zentralak (UCE), Peruko San Marcoseko Unibertsitate Nazional Nagusiak (UNMSM) eta Kolonbiako Caliko Javierana Unibertsitateak (IEIren bitartez). Hegoatik talde teknikoko lagun eta irakasle-ikertzaile hauek parte hartu dute: Asier Arcos, Xabier Gainza, Juan Carlos Pérez de Mendiguren eta Unai Villalba.

Proiektuko jardueren artean, Quiton eta Otavalon (Ekuador) aurrez aurreko mintegi bat egin zuten, eta horretan andeatako erakundeetako eta Hegoako hainbat irakaslek eta erreferentek parte hartu zuten. Horretan, bada, Trantsizio Ekosozialei buruzko Tresna Kutxa bat diseinatu zen, trantsizio ekosozialen dimentsioak eta ardatzak lantzeko fitxa praktikoak dituen. Prozesu hori 2026an bukatuko da. Gainera, lurralde bakoitzean prestakuntza plan espezializatua garatuko da, proiektuen kudeaketari buruzko prestakuntza espezializatuko plan bat eta erakunde partaideen ekoizpen sektoreko espezializazio teknikoak garatzen da. Prestakuntza planaren barruan, lurralde/herrialde bakoitzeko hiru emakumek hainbat euskal erakunde eta kooperatibarekin elkartu ziren Euskadin (2025eko irailaren 27tik urriaren 10era bitartean), eta aurrez aurreko mintegi bat egin zen EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (urriaren 3an), Hegoa Institutuaren masterren esparruan.

Proiektuak, halaber, tokiko zenbait ekimen produktibori laguntzen die, hain zuzen ere, Macharetí de Chuquisaca (Boliviako Chaco) herrian eztiaren deribatuak ekoizteko lantegi bat eraikiz eta hornituz, AAPIMMACH elkartearekin batera; Peruko erdialdeko oihaneko Pangoa eta Satonaki



kafe-kooperatiben jarduera dibertsifikatzeko ekipamendua emanez, eta Cayambeko (Ekuador) Emakume Ekoizle Agroekologikoen Kontseilu Kantonalaren (CCPAC) azoka agroekologikoetarako ekipoak eman bitartez.



Lan horren parte gisa, *Revista Iberoamericana de Estudios del Desarrollo / Iberoamerican Journal of Development Studies* aldizkariaren monografiko baten edizioa lagundu dugu, "Economía Social y Solidaria y Transiciones Ecosociales" izenburukoa (14. bolumena 1. zkia., 2025eko urtarrila-ekaina). Hura proiektuan parte hartzen duten Hegoako bi irakasle eta ikertzailek editatu dute, Unai Villalba Eguluzek eta Asier Arcos Alonsok, alegia. Proiektuaren emaitza gisa, beste artikulua eta ikerketa batzuk ere izan dira, Ekuadorreko UCEko (César Carranzak) eta Hegoako IIP-ek elkarrekin egindakoak.

Proiektuak eLankidetzaren diru-laguntza izan du, 332.445,08 eurokoa.



### 3.1.2. Gatazkak, bakea eta garapena

#### **Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldea**

2010ean sortutako talde horrek Eusko Jaur-laritzaren aintzatespena du Euskal Unibertsitate Sistemako A kategoriako talde gisa (aintzatespen gorena). 2022an, aintzatespen hura eta dagokion finantziazioa 2025era arte berritu zituzten. Honako hauek dira bere ikerketa ildoak: 1) Tokiko giza garapena, lurraldea eta instituzionaltasuna; 2) Tokiko trantsizio ekosozialak eta ekonomia sozial eta solidarioa (TELESS); 3) Gatazkak, bakea eta segurtasuna; 4) Feminismoak, gatazkak eta giza eskubideak.



Taldeko kideek ikerketa proiektu eta aholkularitza lan ugari garatzen dituzte, erakunde publikoen eta gizarte ekimeneko erakundeen diru-laguntzaz. Gainera, nazio mailako eta nazioarteko biltzarretan parte hartu ohi dute eta doktore-tesiak zuzentzen dituzte.

**Taldeko kideak:** Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Jokin Alberdi Bidaguren, Asier Arcos Alonso, Eflen Areskurrinaga Mirandona, Sheida Besozzi, Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Anca Cretu Tapoi, Xabier Gainza Barrenkua, Amaia García Azpuru, Gloria Guzmán Orellana, Irene Jiménez Zumalde (prestatzen ari den ikertzailea), Tania Martínez Portugal, Elena Martínez Tola, Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao, Rakel Oion Encina, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ivana Ruiz Estramil, Yuliya Sekezyuk, Claudia Alejandra Sepúlveda Giraldo, Unai Villalba Egiluz, Francisco Zabalo Arena eta iker zirion landaluz.

#### **Kolonbiako Egiaren Batzordearen gomendioen jarraipena egiteko nazioarteko artikulazioa. Kolonbiako erbesteratuen eta Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketen biktimei laguntzea**

2025ean zehar, proiektuak Kolonbiako erbesteratuen eta Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen urraketen biktimei egia, justiziaren, erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermen agendan lagundu du, baita kolektiboen gaitasunak indartzeko prozesuen sustapenean ere.

Kolonbiari lotutako jardueri dagokienez, proiektu horren esparruan Kolonbiako Egiaren Batzordearen Ondarea Erbestetik Babesteko Sarea (REL). Sareak Kolonbiako erbestearen ikusgarritasuna mantendu nahi du, gizarte zibil gisa Kolonbiako Egiaren Batzordearen ez errepikatzeko bermeak inplementatzeko presioa egiteko. 2025ean zehar Generoko Talde Internodala (GIG) indartu zen, prestakuntza saioak garatu bitartez eta, bere esperientzian oinarrituta, memoria historikoko artxiboak eraikitzen hasiz. Halaber, Ondarea Erbestetik Babesteko Sarearen ekintza-ildoak ere koordinatu zituzten eta sare sozialak eta webgunea eguneratuta mantendu ziren.

Proiektuan *online* eta aurrez aurreko zenbait jarduera zeuden, hala nola maiatzaren 16tik 19ra bitartean Erroman egindako Emakume Erbesteratuen Topaketa eta Kolonbiako erbestearen bigarren/hirugarren belaunaldien idazketa prozesuaren itxiera topaketa eta prozesu horretatik sortutako *Semillas regadas* lanaren aurkezpen publikoa (Bilbon, irailaren 29an eta 30ean).



Urriaren 10ean, Osasun Mentalaren Munduko Egunaren esparruan, Egiaren Batzordearen txostena irakurtzeko gidaliburu psikosoziala sozializatu zen, *Puentes de escucha* izenekoa (Hegoa, 2024). Generoko Talde Internodalarekin batera, bi omenaldi une antolatu zituzten 1325 Ebazpenaren urteurrenaren harira (*25 años de la Resolución 1325: Mujeres, paz y seguridad desde el territorio del exilio y las diásporas, urriaren 24an eta 31n*), eta Egiaren Batzordearen esperientziari buruzko zenbait hitzaldi egin zituzten jarduera akademiko eta publikoetan, erbestearen biktimekin batera, Bordelen (otsailean), Bilbon (maiatzean), Madrilan (urriaren) eta Donostian (azaroan).



Mendebaldeko Sahararekin lotutako jardueri dagokienez, lankidetzaren instituzionala ezarri genuen Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan kokatua dagoen Tirifatiko Unibertsitatearekin. Lankidetzaren helburua Unibertsitatearen Ikerketa Zentroa (CIUT) indartzea zen, hain zuzen ere giza eskubideen arloko ikerketa-ildoak finkatzeko eta proiektatzeko. Horretarako, bada, kudeaketa dokumentaleko, baliabide espezializatuen antolaketako eta komunikazio zientifikoko gaitasunak handitu nahi dituzte. Halaber, Unibertsitatearen liburutegia handitzen lagundu dugu, Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketari buruz Hegoak egindako ikerketak eta baliabideak erabiltzeko aukera emanez.

AGainera, proiektuak *El Oasis de la Memoria* txostenaren laburpena arabierara itzultzeko aukera eman zuen, eta, hortaz, hura irakurtzeko aukera erraztu die Mendebaldeko Saharako biztanleei eta arabiar munduko eragile instituzionalei. Halaber, Afrikar Batasuneko giza eskubideak babesteko mekanismoen aurrean eragiteko baliabide gisa erabiltzea ere erraztu du; izan ere, ebidentzian oinarritutako eragiteko estrategiak indartu ditu.

Beste jarduera bat izan da Tirifatiko Unibertsitatearekin batera “Memorias que resisten: Investigación en derechos humanos en el Sáhara Occidental” mintegi birtuala antolatzea. Mintegia Carlos Martín Beristainek eman zuen, eta, bertan, hainbat unibertsitateko ikasle eta ikertzaileek parte hartu zuten, hala nola Sevillako Unibertsitatekoek, Venezuelako Unibertsitate Bolivartarrekoek edo Tirifatiko Unibertsitateko Afrika, Ekialde Hurbila eta Asia Katedrakoek, baita okupatutako lurraldeetako, kanpamenduetako edo erbesteko aktibista sahararrek ere



Azkenik, Mina Baali saharar defendatzailearen gaitasunak indartzen lagundu genuen, gaztelania ikasteko prestakuntza intentsiboko egonaldia baten bitartez. Nazioarteko elkarrikerarako kompetentziak indartzeaz gain, hark Mendebaldeko Saharako giza eskubideen egoeran eragiteko eta hura salatzeko jardueretan parte hartzea erraztu genuen.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren babesarekin izan du, 100.000 euroko diru-laguntza izendun baten bitartez.

### **Bakearen eraikuntza. Ekarpen teoriko eta esperientzia praktiko berriak**

Hegoaren ikerketa proiektua, Europako hainbat unibertsitate eta ikerketa zentronen artean egindako eta EBk finantzaturako aurreko Erasmus+ proiektu bati lotua. Aldia: 2025eko maiatzaren 12tik 2029ko maiatzaren 11ra.

**Hegoatik parte hartzen duten ikertzaileak:** Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Sheida Besozzi, Anca Cretu Tapoi, Irene Jiménez-Zumalde, Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao, Ivana Belén Ruiz Estramil, Yuliya Serkezyuk Penyushkevych, iker zirion landaluze.

### **Kolonbiako Egiaren Batzordearen ekarpenak bakearen eraikuntzan. Trantsizioko justizia eraldatzaile baterako prozesuak, diskurtsoak eta politikak (COMICOL)**

Hegoaren proiektua da, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak *Proyectos de Generación de conocimiento* deialdian onartua. Kodea: PID2024-161152OB-I00. Aldia: 2025eko irailaren 1etik 2028ko abuztuaren 31ra. Proiektuak Kolonbiako Egiaren Batzordeak erabilitako hainbat ikuspegi, estrategia eta tresna berritzaile aztertuko ditu, baita horiek Kolonbiako bake prozesuan izan duten eragina ere. Hegoa Institutuaz gain, proiektuan Granadako Unibertsitateko Instituto de Paz y Conflictos-k eta Europako eta Kolonbiako beste unibertsitate batzuek parte hartzen dute.

**Hegoatik parte hartzen duten ikertzaileak:** Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Anca Cretu, Irene Jiménez-Zumalde, Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao, iker zirion landaluze.

### **Feminismoa, gatazkak eta giza eskubideak**

Ikerketa ildo hori gatazka armatuen, bakearen eraikuntzaren, trantsizioko justiziaren eta memoria historikoaren azterketa feministan zentratzen da. 2025eko jarduera nagusiak bi ekimenen inguruan antolatu ziren. Alde batetik, *Belizismoaren, autoritarismoaren eta erreakzio patriarkalaren aurrean giza eskubideak defendatzeko diskurtso eta praktika feministak* proiektua hasi zen. Haren helburua da gatazka biolentoen eta giza eskubideen defentsaren azterketa eta ekintza feministei buruzko prestakuntza sustatzea eta horri buruzko ezagutza kritikoa sortzea eta zabaltzea. Horretarako honako ekintza hauek garatzen ditu: Prestakuntza Mintegi Iraunkorra unibertsitatean, Prestakuntza espezializatuko lkastaro bat giza eskubideen defendatzaileentzat, euskal kolektibo feminista eta internazionalisten esperientzien bi sistematizazio, eta giza eskubideei buruzko baliabide pedagogikoak egitea. Beste alde batetik, *El Salvadorreko El Mozote eta inguruko sarraskiaren auzi estrategikoari babesa ematea* proiektuan aurreratu da. Hura kasuaren frogan sistematizazio lan juridikoari lotuta dago.

**Taldeko kideak:** Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Sheida Besozzi, Itziar Mujika, Yuliya Serkezyuk, iker zirion, Ivana Ruiz Estramil.

### **Belizismoaren, autoritarismoaren eta erreakzio patriarkalaren aurrean giza eskubideak defendatzeko diskurtso eta praktika feministak (PRO-2024K3/0014)**

2025ean proiektu horren lehen etapa garatu da. *Feminismoei, Gatazkei eta Giza Eskubideei buruzko Prestakuntza Mintegi Iraunkorraren* sei saioretako hiru antolatu dira. Horien gaiak memoria honen 2.3 atalean (Hegoak antolatutako jardunaldiak eta mintegiak) daude azalduta. Saioretako lehenengoa “*Ekintza feminista gerraren areagotzearen aurrean*” izenekoa maiatzean antolatu zen eta, horretan, 37 lagunek parte hartu zuten (% 89 emakumeak eta % 11 gizonak).



Bigarrena, “*Bakeari eta giza eskubideei buruzko ikuspegi feministak diasporatik*” izenekoa, urrian izan zen, eta 35 lagunek parte hartu zuten (% 85 emakumeak eta % 15 gizonak). Hirugarrena, “*Nazioarteko Zuzenbidea gatazka armatuetan, atzerakada patriarkalaren testuinguruan: diagnostikoa eta proposamenak*” izenekoa, azaroan egin zen eta 35 lagunek parte hartu zuten (% 80 emakumeak eta % 20 gizonak).

Ikerketa estrategiaren parte gisa, bi sistematizazio egin dira. Alde batetik, Emakumeok Gerraren Aurka (EGA) esperientziaren sistematizazioa dugu. Hura gerraren aurkako euskal kolektibo feminista eta antimilitarista nagusietako bat da. Sistematizazioa egiteko, lehenik, informazioa bildu zen, eta EGArekin lan egiteko lehen tailer bat antolatu zen. Beste alde batetik, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren (SEBN) aldeko Euskal Sarearen 20 urteko esperientziaren sistematizazioa dugu. Sarea hainbat udaletako, Euskal Fondoko, Emakundeko eta elkartasun erakundeetako nazioarteko lankidetzako edota berdintasun arloko ordezkariak osatzen dute.

Beharrezkoa zen dokumentazioa biltzeaz gain, bi lan tailer antolatu dira Euskal Herrian, Euskal Sareko erakundeekin batera, baita hainbat tailer eta elkarrizketa ere, Tindufeko kanpamentuetan, SEBNrekin batera. Halaber, Hegoak Informazio Baliabideen Buletinetako lehenengoa argitaratu du, “*Migrazioak: kontrolaren eta erresistentziaren artean*” izenekoa, Ivana Ruiz-Estramilek idatzia.

Proiektuak elankidetzaren babesa izan du, 211.767,35 euroko dirulaguntzarekin..

### ***El Salvadorreko El Mozote eta inguruko sarraskiaren auzi estrategikoari babesa ematea***



Mozoteren oroitzapenak (Cristosal).

Proiektu hori 2025ean onartu eta abiatu zen, eta Hegoak giza eskubideen urraketa larrien biktimen egia, justizia eta erreparazio eskubideak bultzatzeko garatzen duen lan-ildoaren esparruan kokatzen da. Bere helburua El Mozoteko eta inguruko sarraskiaren kasuari dagokion zigor-prozesuko akusazio partikularrari laguntzea da. Izan ere, El Salvadorko gerran gertatutako sarraski hura Latinoamerikako historia berriko sarraskirik txarrena izan daiteke. Horretan, mila zibil inguru –horietatik erdia haurrak– hil zituzten hiru egunetan, El Salvadorko Indar Armatuak Goi Agintariaren zuzendaritzapean.

Proiektuak Cristosal erakundeko Justizia Trantsizionaleko Unitateko talde juridikoak egindako frogen sistematizazio-lanean laguntzen du, eta zigorrik gabe jarraitzen duen gizateriaren aurkako krimen horri buruzko sentsibilizazio-jarduerak egiten ditu Euskal Herrian

Proiektuak 7.500 euroko diru-laguntza jaso du Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren eskutik.



### **Giza Eskubideak Mendebaldeko Saharan**

Lan-ildo horretan egindako jarduerak giza eskubideak defendatzeko erakunde sahararren gaitasunak indartzeko prozesuekin jarraitu zuten, egia bistaratzeko eta justizia eta erreparazioa eskatzeko ekintzak sustatzeko, hain zuzen ere, giza eskubideei buruzko ikerketak egin eta aurkikuntzak zabaldu bitartez, eta biktima sahararrei bidelaguntza emanez.

Aurretik azaldutako “Kolonbiako Egiaren Batzordearen gomendioen jarraipena egiteko nazioarteko artikulazioa. Kolonbiako erbesteratuen eta Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketen biktimei laguntzea” proiektuaz gain, ildo horretan jarraian azalduko ditugun proiektuak aurkitzen dira:

**Taldeko kideak:** Tatiana Montenegro Garay, Almudena Sainz González. Urte horretako jardueren laguntzaileak: Irantzu Mendia Azkue, Andrea Gago Menor, El Ghalia Djimi, Abdeslam Aomar, Aminatou Haidar, Carlos Martín Beristain, Dumaha Mohamed, Omeima Abdeslam, Cheija Abdalahe, Mina Baali, Abderrahmane Taleb Omar, Mohamed Hali, Minetu Salama, Zainabu Mohamed, Aichanana Ahmed, Tofa Mohamed, Warda Mohamed, Oubi Bouchraya, Taleb Ali Salem, Najla Mohamed, Khadiya Mohamed, Nayua Jatri, Nedal Adhan, Ebbaba Hameida, Gemma Arbesú, Laura Casielles, Judeig Ahmed, Elmami Brahim, Josu Ibargutxi, Nerea Martínez, Iñigo Asensio, Laura Daudén, Miguel Herrera, Jadiya Ali, Bachir Mahyub.

### **Ahantzuraren aurka: memoria eta erresistentzia sahararra Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen urraketen aurrean (P375-2024)**

Proiektuak 102.000 euroko dirulaguntza izan du Euskal Fondoaren eskutik, eta Hegoak eta Mendebaldeko Saharako hainbat erakundek memoria, giza eskubideen urraketen dokumentazio eta biktimak laguntzeko prozesuen inguruan egiten duten lanarekin jarraitu zuen.

Hala, Mendebaldeko Saharako defendatzaileek giza eskubideen urraketei buruzko informazioa biltzeko, antolatzeko eta aztertzeko dituzten gaitasunak landu ditu proiektuak. Horrek, bada, erregistro eta sistematizazio tresnen eraikuntzan aurrera egiteko aukera eman du; izan ere, tresna horiek eragiteko eta egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko ekintzak sostenga ditzakete.

Desagertutako pertsona sahararrak identifikatzeari lotutako frogagarritasun ahalmena indartu da, okupatutako lurraldeetan senideen lagin genetiko berriak bildu eta Aranzadi Zientzia



Elkarteari bidali bitartez. Azken horrek Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) DNA Banku Unitatean gordeko ditu laginak. Halaber, *Cuaderno de Meheris* lana argitaratu dugu. Horretan, Carlos Martin Beristainen kontakizun laburrak jasotzen dira, hain zuzen ere, Meheriseko fosa komunetan lehen desagertuen exhumazioa eta identifikazioa egiten ari zirenekoak (2013).

Laguntza psikosozialeko eredu deszentralizatu bat sustatu zen errefuxiatuen kanpamentuetan, SEADko Osasun Ministerioko psikologo talde bat indartu bitartez. Talde horrek arreta eskaini zien desagertze behartuko biktimen eta dronekin edo beste arma batzuekin hildakoen senideei, eta esperientzia traumatiko horietatik sortutako beharrak identifikatu eta gizonen eta emakumeek jasaten dituzten inpaktu desberdinak bistaratu zituen.



Proiektuak *Gertatutako guztia argitan jarri. Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021) txostena arabierara itzultzeko aukera eman digu*, hain zuzen ere, emakume sahararren giza eskubideen urraketen arloan Afrikar Batasunean eragiteko ekintzak indartzeko helburuz. Euskal Herrian sentsibilizatzeko eta eragiteko ekintzen artean, azaroan, *Ahantzuraren kontra: frankismoaren biktimak eta Mendebaldeko Sahara* jardunaldia egin genuen. Hura memoria honetako 2.3 atalean azaltzen da.

### **Zigorgabetasuna salatzea: giza eskubideen defentsa Mendebaldeko Saharan (P393-2025)**

Proiektua abenduan hasi zen eta Euskal Fondoaren finantziazioa du, 102.000 euroko diru-laguntzarekin. Aurreko fasean (P375-2024 proiektua) bultzatutako lanarekin jarraitzen du, hain zuzen ere, Mendebaldeko Saharako erakundeen ikerketa, dokumentazio eta eragiteko gaitasunak indartzeko giza eskubideen arloan. Hala, proiektuak honako hauek aurreikusten ditu: dokumentatutako giza eskubideen urraketen kasuen egoera sistematizatzea, eta, horretarako, horiek estatuko eta nazioarteko instantzietan izan duten ibilbidea aztertzea; Afrikar Batasunak giza eskubideak babesteko dituen mekanismoei buruzko ikastaro espezializatua egitea; SEADko Giza Eskubideen

Eragileen 8. Topaketa (online) egitea, defendatzaile eta erakunde sahararrak elkarrekin prestatzeko, koordinatzeko eta hausnartzeko eremu gisa; biktimen senideen laguntza psikosoziala indartzen jarraitzea, eta Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan eragiteko ekintzak sustatzea, *Saharais: las otras víctimas del franquismo y postfranquismo* liburua Euskal Herrian eta Madrilén aurkezteko bira txiki baten bitartez.



### 3.1.3. Garapenerako eta nazioarteko lankidetzarako politiken koherentzia

Taldea EHUren esparruko aintzatespena du (GIU21/2011) 2022-25 aldirako, eta haren ikerketa-ildoak garapenera eta nazioarteko lankidetzari buruzko eztabaiden azterketa kritikoan zentratzen dira. Haren lan ildoen artean dugu 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen azterketa, horien inplikazioetan, inplementazioan, efektuetan eta kontraesanetan sakonduko duena. Ildo horretan Garapenerako Politiken Koherentziaren eginkizuna ere aztertzen dute, baita nazioarteko lankidetzaren sistema, haren eragileak eta tresnak ere. Taldeak, halaber, erakunde deszentralizatu eta unibertsitatearen eginkizuna aztertzen du, baita garapen gaitan ematen diren generoko joerekin lotutako zeharkako kontuak, edo elikadura burujabetzari lotutakoak ere, besteak beste.

2025ean, taldeko kideek EHUren inpaktu sozialari lotutako Unibertsitate-Gizarte proiektu batean parte hartu dute. Halaber, Espainiako Estatuko unibertsitateek eta ikerketa-zentroek garapen iraunkorrerako lankidetzaren duten eginkizunari eta lankidetzako gainontzeko eragileekin duten harremanari buruzko txosten estrategiko bat bukatu dute, Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzaren (SECI) enkarguz. Horrez gain, aldizkarietako artikulua eta liburuetako kapituluak argitaratu dituzte honako gai hauei buruz: 2030 Agenda eta horren inplementazioa hainbat sektoretan (landa garapena) eta herrialdetan (Frantzia), unibertsitatearen gizarte balioa, nazioarteko lankidetzaren egoera autoritarismo joera berrien aurrean, elikadura-sistema alternatiboak, edo Ikaskuntza-Zerbitzua 2030 Agenda unibertsitateetan sartzeko tresna gisa.

Azkenik, taldeko kideek hainbat eztabaidatan eta forotan parte hartu dute, hala nola giza garapenera eta iraunkortasunari buruzkoak (Ekonomia Ekologikoaren Biltzarra, Oslon) eta ekoberrikuntzari buruzkoak (CIRIEC, Bordele), eta zenbait hedabiderek kolaboratu dute nazioarteko ekonomiari buruzko azterketa kritikoak egiteko.

Además, han participado en debates y foros relacionados con el desarrollo humano y la sostenibilidad (Congreso de Economía Ecológica, Oslo) y la eco-innovación (CIRIEC, Burdeos) y colaborado con medios de comunicación para realizar análisis críticos de la realidad económica internacional. Taldeak Garapenera buruzko Ikasketen Espainiako Sarean (REEDES) gogoz parte hartzen jarraitu du, izan ere, Iratxe Amiano sarearen zuzendaritza batzordeko diruzaina da eta Andrés Fernando Herrera sarearen koordinatzaile teknikoa maiatzera arte. Irati Labaienek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lankidetzaren Mahaian parte hartzen du. Unibertsitatea gizarte eraldaketaren eragile bilakatzeko konpromisoarekin bat, Iratxe Amianok EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren menpe dagoen S-L i3lab laborategi iraunkorraren talde eragilean parte hartzen du.

**Taldeko kideak:** Jorge Gutiérrez (ikertzaile nagusia), Iratxe Amiano, Andrés Fernando Herrera, Irati Labaien, Eduardo Malagón, Ignacio Martínez, M<sup>a</sup> José Martínez, Koldo Unceta.




## Euskal Lankidetzaren Ataria

Euskal Lankidetzaren Atariari lotutako lanarekin jarraitu dugu. Taldeak bultzatutako ekimen hura oso lagungarria da euskal lankidetzaren informazio-sistemak hobetzeko, egindako jardueri buruzko informazioa bateratzeko, kontuak emateko, ikerketak errazteko, erakundeen arteko koordinazioa bultzatzeko eta ebaluazio-kultura sustatzeko.

Tresnak, bada, informazioa eta datuak eskaintzen ditu 2014tik. Ekimenean erakunde hauek parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritza (eLankidetzaren Ataria); Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Zarauzko Udalak, eta Euskal Fondoa – Lankidetzarako Euskal Toki Erakundeen Elkarteak.

2025eko jardueren artean ditugu bederlatzi erakunde horiek finantzatzeko eta 2024an egindako proiektuen eguneraketa, “Grafikoak eta analisiak” ataleko hobekuntzak, eta *Euskal Lankidetzaren Ataria 2024* txostena egitea eta zabaltzea.



### 3.1.4. Hezkuntza

Krisi multidimentsionaleko testuinguru honetan, hezkuntza kritikoa eta askatzailea funtsezkoa da ultraeskuinaren eta diskurtso arrazisten, antifeministen eta xenofoboaren aurrerabidea ulertzeko eta horiei aurre egiteko, baita kapitalismoak mundu mailan erabiltzen dituen indarkeriei aurre egiteko ere, hark krisi klimatikoan dituen efektuak barne. Oinazea, bidegabekeriak eta desberdinkeria eragiten dituen eredu horren aurrean, alternatibak irudikatzen eta eraikitzen jakintza eta esperientzia oro behar ditugu. Bide horretan, Hegoako hezkuntza taldean uste dugu erakundeen eta gizarte mugimenduen arteko artikulazio feminista eta internazionalista estrategikoa dela hezkuntza ekintza askatzailean dimentsio politikoa txertatzeko.

**Taldeko kideak:** Gema Celorio, Juanjo Celorio, Iris Murillo, Andrea Rey eta Amaia del Río.  
**Laguntzaileak:** Nacho Álvarez, Teresa Coma, Enrique J. Díaz, Diana Granados, Susana Irisarri, Julio R. Jaime, Bidezko Elikadurako Taldea, Analía E. Leite, Idoia Marcellán, Beatriz Martínez, Suyapa Martínez, Maitane Picaza, Robinzon Piñeros, Ignacio Rivas, Axel Rojas eta Humberto Tommasino, besteak beste.

**Hitzarmena Bidezko Elikadurarekin: Unibertsitate kritiko eta eraldatzailea. Ikuspegi ekosozial eta ekofeminista klima-krisiari eta krisi sozialaren aurrean, Elikadura-Eskubidea aldatzeko ardatz hartuta (2022/PCONV/000482)**

2025ean zehar, hitzarmenak aukera eman digu hainbat lurraldetako (zortzi autonomia erkidego eta Melilla) unibertsitate eta gizarte eragileekin harremanak sakontzeko eta lan dinamika egonkorragoak ezartzeko.

Halaber, irakasle taldeei emandako laguntza indartu dugu, curriculumeko zein curriculumaz kanpoko eremuetan. Azpimarratzekoa da zenbait fakultatetako prestakuntza-programetan eta zenbait lurraldetako masterratan izandako parte-hartzea eta ikaskuntza-zerbitzua prozesuei emandako bultzada, hain zuzen ere, unibertsitateko jardunbideak elikadurari lotutako gizarte ekimenekin konektatu bitartez. Urteko jarduerarik gogoangarrienetako bat izan da hiru maleta pedagogikoren (eskola baratzek, haur hezkuntza eta hezkuntza eraldatzaile baterako metodologiak) lanketa eta aurkezpena. Baliabide horiek, bada, pedagogia kritikoetan eta metodologia eraldatzaileetan oinarritutako hezkuntza prozesuen adibide dira.

Gainera, **Kaixo, Elikadura Burujabetza!** online ikastaro autogidatua berrargitaratu dugu. Hura, ikuspegi ekosozial eta feminista batek egindako prestakuntza da, eta honako gai hauek hobeto ezagutzeko interesa duten irakasleei, gizarte eta hezkuntza erakundeei eta kolektiboek zuzenduta dago: nekazaritza eta elikadura eredu eta haren ondorioak, agroekologiari eta elikadura burujabetzari lotutako elikadura-eredu alternatiboak, elikadura trantsizioa hezkuntza-eremuetan lantzeko estrategia pedagogikoak, eta prozesu horiek laguntzen dituzten ekonomia eraldatzaileak.

Ikerketaren arloan, ikasleei gradu eta master amaierarako lanak egiten laguntzera bideratu dugu lana. Horretarako, bada, ikasleek, irakasleek eta gizarte kolektiboek elkarrekin hausnartzeko mintegiak antolatu ditugu. Halaber, bi dossier egin ditugu (haur/lehen hezkuntzara eta Gizarte Heziketara zuzenduak), ikerketa proposamenekin. Dossierak gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz argitaratu ditugu.

Halaber, Ikerketa kritiko eta eraldatzaileari buruzko Lan-mahaia garatu dugu, Caucako Unibertsitatearen (UNICAUCA) lidergoarekin eta Argentinako, Kolonbiako eta Espainiako Estatuko unibertsitateetako sei esperientziaren partaidetzarekin. Mahaia bost topaketa izan ditu, eta, horietan, "bestelako" ikerketako, hau da, lurraldearekin konprometitutako ikerketa kokatu, dekolonial, feminista eta partizipatiboko esperientziak partekatu ditugu. Halaber, ikerketa akademikoa eraldatzaile bilakatzeko alderdiak aztertu ditugu, teoriatik eta praktikatik.

**¡Convertimos las aulas en espacios de transformación!**

Metodologías críticas y transformadoras y Educación Infantil, protagonistas de nuestras nuevas maletas pedagógicas.

**a aliment acción** | Present. online | 20.01.26 16 h

Alimentación es un programa socioeducativo de: JUSTICIA ALIMENTARIA | hegoa | Cooperación Española

maleta pedagógica  
**dale una huerta al cole**

situaciones de aprendizaje en el huerto escolar para educación infantil y primaria

Bienvenidx

**a aliment acción**



Prozesuan, bada, hiru herrialdeetako hainbat irakaslek eta ikaslek parte hartu dute, eta horiek in elkartrukeak erregistratzeko eta sistematizatzeko taldea osatu dugu.

Gobernantzaren arloan, moodle eremu bat finkatu dugu, elikadurako kontratazio publikoko gordailu eta praktika komunitate gisa, Osasuna Sustatzen duten Unibertsitateen Espainiako Sarearekin (REUPS) dugun lankidetzaz mantendu dugu, eta hainbat prozesu kokaturekin aurrera egin dugu: kontratazio batzordeak, erosketa publiko berdea, material pedagogikoak kafetegietan, eta abar. Gainera, ikuspegia unibertsitate iraunkortasunaren beste dimentsio batzuetara zabaldu dugu, hala nola campuseko berdeguneen berronertze partizipatibora.

Dinamizazioan, fakultate parte-hartzaileetan ekintza mobilizatzaileak sustatzen jarraitu dugu, hala nola ikasleen elkarrekin batera muralak margotzea – UCMko *Ecotópico*-, azokak – Euskadiko *Uniazoka*- eta erakusketak -adibidez, Mallorcan “dieta planetarioari” buruz egindakoa-, edota beste lurralde batzuetan jardunaldiak edo iraunkortasunaren asteak antolatzea.

Hitzarmena 2023-2026 aldiari dagokio, eta Bidezko Elikadurarekin batera egiten dugu (hura da partzuergoko burua). Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) 1.500.000 euroko diru-laguntza eman du. Informazio gehiago [Alimentación sarean](#).

### **Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa. Herritartasun globala eraikitzeko konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan (2022/PRYC/001032)**

Urtarriletik martxora bitartean, Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa proiektuaren I. Fasea bukatu genuen. Hilabete horietan, *Unibertsitate hedakuntzari buruzko esplorazio-diagnostikoa Espainiako Estatuako 8 unibertsitate publikotan* lanaren behin betiko bertsioa bukatu zen (gaztelaniaz eta euskaraz). Hura une garrantzitsua izan zen; izan ere, ikerketa prozesua bereziki konplexua izan zen, hainbat unibertsitate konparatu eta elkarriketa eta inkesta asko aztertu behar izan baitzen.



Aldi berean, emaitzak eta ikaspenak zabalitzeko estrategia indartu genuen: Unibertsitate Hedakuntza Kritikoari buruzko I. Jardunaldietako Azken Adierazpena jasotzen duen *póster* bat egin genuen, eta horrekin batera prozesuan sortutako materialak eskuratzeko QR kode bat; produktu komunikatibo eta pedagogikoak bultzatu genituen, hala nola irismen handiko *Carne Cruda* saioan grabatutako *podcasta*, eta *Hariak* aldizkari hiru monografikoak proiektuan ikasitakoa sistematizatzeko (**Hariak 13. Unibertsitate Hedakuntza kritikoa; Hariak 14. Aniztasunak eta artikulazioak**, eta **Hariak 15. Ikerketa konprometitua**).


Proiektuaren I. Fase horretan kontuaren egoera aztertzei aukera izan dugu, eta unibertsitate arteko sare bat bultzatu ahal izan dugu (Estatuako zortzi eta Latinoamerikako bi unibertsitateekin), Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren

proposamenaren inguruan. Horretan, gizarte erakundeek, ikasleek, irakasleek, ikertzaileek eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako teknikariek parte hartu dute. Beraz, oinarri sendo bat ezarri dugu sarearen lanarekin eta bere eragin akademiko eta sozialarekin jarraitzeko.

Proiektuak 108.091,00 euroko dirulaguntza jaso du AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren eskutik.

***Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa, GJHei laguntzeko eta eraldaketa ekosozialerako garrantzitsua den ezagutza-ekintza eraikitzeko (2024/PRYC/000632)***

Otsailean Unibertsitate Hedakuntza Kritikoko proiektu berri bat abian jarri genuen. II. Fase horretan, lurraldearekin konprometitutako eta Unibertsitate-Gizarte artikulazioaren bitartez garatutako esperientzien hezkuntza-ahalmena nabarmentzen duten ikaspenak identifikatzea da asmoa, eta, gero, ikaspen horiek komunikazio eraldatzaileko estrategien bitartez ezagutzera ematea.



Sarean dauden Espainiako Estatuko zortzi eta Latinoamerikako bi unibertsitateekin dugun lankidetzak mantentzen dugu. Sarearen bitartez, eta Diziplinari Aholku Batzordearen laguntzaz, unibertsitate komunitatearen eta lurraldeko eragileen arteko lotura lantzen duten esperientzia anitz bildu ditugu. Esperientzia horietatik, ikuspegi feministak, ekosozialak eta eskubidekoak aplikatzen dituzten lau aukeratu ditugu. Horietako bat landa eremuan garatzen da. Esperientziak aztertzeak indarguneak eta inpaktu positiboak identifikatzeko aukera eman digu, baita ekimen horiek berez dituzten zailtasunak, tentsioak eta kontraesanak ere. Eta batez ere azken horietatik ikaspen estrategikoak ateratzen ari gara.

2025ean zehar, *Útopi Social Films* produkzio-etxearekin harremanetan jarri eta lan egiten hasi gara. Hark esperientzia horiei buruzko dokumentala egiten lagunduko digu, eta ikus-entzunezko produktu hori prozesu kolektibo eta kolaboratibo baten emaitza izateko eremuak dinamizatuko ditu.

Proiektuak 129.776,00 euroko dirulaguntza jaso du AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren eskutik.

